



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 17a

61. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak *Silencio roto* filmaren interpretazio zentroan duen parte-hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2008ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2007ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Corellako Haur Hezkuntzako ikastetxea hartzen duen eraikinaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako zahar-etxeetako toki itunduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Endarlatsa inguruan gertatzen ari diren harri-erorketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, zahar-etxeetako toki itunduei, itxaron zerrendei eta eskari handieneko eremuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Torrespapel taldearen egoerari eta horrek Leitzako fabrikan etorkizunean izan dezakeen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, zaharrentzako egoitza pribatuetako langile kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik dagoen gaztelania hutsean Nafarroako Gobernuaren turismo-marka Labrit frontoian. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, NA-6900 errepideko eta NA-6710 errepideko tarte jakin batzuk asfaltatze aldera betetako gastuari buruzkoa eta gastua zer kontusaili egotzi zaion jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

- Galdera, Nafarroa 2012 Plana betetzen dela kontrolatzeko izendatutako 26 agenteen izen-abizenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta bide berdeen moduan erabili ahal izateko plana eta Nafarroan dauden bide berdeetarako plan integrala prestatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko jardueren buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, kanabisaren auto-laborantzaren aurkako ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Funes, Faltzes eta Azkoiengo zahar-etxeetako erizaintzako diplomadunei aplikatu beharreko foru arauen betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Nafarroa 2012 Planean aurreikusitako obrak eginez gero Santo Domingo zahar-etxean galduko liratekeen lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik gelditu den Sunbillako Udala bigarren urtez jarraian abeltzaintzako toki azpi-egiturak hobetzeko dirulaguntzetatik kanpo. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Leitzako Maxurrenea etxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, debekualdia ezarri ondotik amuarrain-populazioak izan duen bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak *Silencio roto* filmaren interpretazio zentroan duen parte-hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak *Silencio roto* filmaren interpretazio zentroan duen parte-hartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 14ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du, jakiteko ea zein izan den eta zein den Kultura Departamentuaren parte-hartzea Zaraguetako Silencio Roto filmaren interpretazio zentroan, eta ea asteburuetan Departamentuak kontrataturiko langileak joaten ote diren bertara

lan egitera. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Kultur ekipamendu hori Itoitz Fundazioak sustatu du, dagozkion jardueren esparruan. Kultura eta Turismo Departamentuak ez du gai horretan esku hartu.

Ez da Departamentuak kontrataturiko langilerik joaten ekipamendu horretan lan egitera asteburuetan; izan ere, esan bezala, departamentuak ez du zentro horretan parte hartzen. Herriko bizilagunak dira beren borondatez lan egiten dutenak, Zaraguetako kontzejuak, Artzibarko Udalak eta Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioak sinaturiko hitzarmenari jarraituz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 9an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2008ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2008ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 14ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2008ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruz (PES-351/08). Hona Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 28an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Kontusailen betetzea 2008-11-17an

Departamentua/Programa/Proiektua/Kontusaila	Betetakoa (%)	Irukin osagarriak
71400700004809411102 Dirulaguntzak nekazaritza arloko komunikazio-ekintzengatik	0	Nekazaritzari buruzko informazioaren horniketa sustatzeko dirulaguntza
71400700004819411100 Dirulaguntzak nekazaritzaren arloko lanbide-erakundeentzat.	100	Nekazaritzako lanbide-erakundeen funtzionamenduko gastuetarako dirulaguntza
714307000016030468100 Sare meteorologikoaren eta hidrologikoaren instalazioak eta hobekuntzak.	100	Nafarroako Gobernuaren estazio meteorologikoetan eginiko inbertsioak
714307000017400468100 Sozietate publikoentzako transferentziak ikerketa proiektuetarako	78,3	Sozietate publikoen ikerketa proiektuetarako INIA delakoaren finantzaketa
710000 71210 4700 412100 Kalte-ordainak landareak erauzteagatik	41,3	Landareak nahitaez erauzteagatik kalte-ordaina
712107100004700412102 Nekazariak eta abeltzainak izenpetzekoak diren erretiro-planerarako laguntzak.	0	Nekazariak eta abeltzainak izenpetutako pentsio planerarako dirulaguntza.
712107100004700412107 "Uholde handiek kaltetutako azpiegitura pribatuentzako eta eragindako errenta galerentzako laguntzak	34,8	Ekaitz eta uholdeek nekazaritzaren sektorean sorturiko kalteak ordaintzeko laguntza bereziak
710001 71230 2276 414200 Nekazaritzarako laguntzen kontrola. Erakunde ordaintzailea FEAGA.	91,3	FEAGA-FEADERek finantzaturiko laguntzen kudeaketarako gastuak
712304700414200-414200 Konpentsatzeko kalte-ordainak PDR FEADER	11,6	Ustategiak eskualde behartsuetan dituzten nekazari eta abeltzainen errenterarako laguntzak.
710001 71230 4700 414202 Nekazaritza eta ingurumen arloetako neurriak. PDR FEADER	73,7	Produktzio integratu eta ekologikorako dirulaguntza.
710001 71230 4700 414205 Aholkularitza zerbitzuak. PDR FEADER	0	
710001 71230 4700 414206 Fruitu lehorren ekoizpenerako laguntzak	13,4	Fruitu lehorren ekoizleentzako Europako laguntza osatzea.
710001 71230 4700 414207 Behi ume-hazleen ekoizleentzako laguntza osagarriak	87,1	Behi ume-hazleen ekoizleentzako Europako laguntza osatzea.
710001 71230 4700 414208 (**) Abeltzaintzako ingurumen laguntzak . PDR FEADER	0,8	Desagertzeko arriskuan dauden bertako arrazetarako eta abeltzaintza ekologikorako laguntzak.
710002 71220 2279 412300 Industriarako laguntzen kontrola. Erakunde ordaintzailea FEAGA-F	94,1	FEAGA-FEADERek finantzaturiko laguntzen kudeaketarako gastuak.
710002 71220 6031 412300 Siloen sarearen egokitzea	100	Siloetan inbertsioak egitea
711000 71320 7700 412203 Gorpuak biltzeko edukiontzia erosteko dirulaguntza	0	Abere hilak biltzeko edukiontzia erosteko dirulaguntza
711001 71310 4700 412204 Esne ekoizpenari behin betikoz uzteagatik dirulaguntza	100	
711001 71310 4700 412208 Abeltzaintzako ekoizpen iraunkorren dirulaguntzak	100	Abeltzaintzako ustategietan produktio modu iraunkoragoetara egokitzea sustatzen duten laguntzak
711001 71310 4819 412200 (**) Abeltzaintza sustatzen duten elkarreentzako dirulaguntzak	96,4	Abere-hazleen elkarreentzako dirulaguntza
720000 72130 7700 417100 Ureztaketa eremu berrietarako edo daudenak hobetzeko dirulaguntzak. PDR FEADER	77,1	Lehorreko lurra ureztaluz bihurtzea, ureztaketarako ekipamenduak lursailetan eta dauden ureztaketaremuak hobetzea.
720001 72120 6019 414300 Lurren jabetza antolatze eta lurzati berrantolamendua egiteko obrak. PDR FEADER	94,4	Jabetza berrantolatzea lurzati berrantolamenduko prozesuen bitartez
720001 72120 7609 414304 Abeltzaintzako azpiegiturarako laguntzak. PDR FEADER	94,4	Abeltzaintzako azpiegiturarako eta titularitate eta erabilera publiko ekipamenduetarako laguntzak.
720001 72120 7609 414305 Titularitasun publikoko nekazaritza azpiegituraren eragindako kalteak konpontzeko laguntzak	100	Nekazaritza-erabilerarako azpiegitura publikoetan izandako kalteak, ekaitzek edo uholdeek sortutakoak.
720001 72120 7700 414302 Ustategien oinarriko azalera eratzeko laguntzak	99,9	Lurzati berrantolamendua ukitutakoentzako laguntzak, ustategi bideragarriak lortzeko.
720001 72120 7700 414304 Labore iraunkorretan izandako galerengatik kalte-ordainak	4,7	Lurzati berrantolamendua ukitutako labore iraunkorretako jabeentzako kalte-ordainak
721000 72210 4700 413100 Kooperatibentzako laguntzak, auditorietarako, kontabilitatea gaurkatzeko eta txostenetarako	100	
721000 72210 4701 413100 Nekazaritza-kooperatibak berregituratzeko pizgarriak	58,1	
721000 72210 4701 413104 Nekazaritza-produktuak merkaturatzeko ekimenak sustatzea	100	Kalitatezko nekazaritza produktuen merkaturatzea hobetzeko sustapen ekimenak bultzatzeko laguntzak.

Departamentua/Programa/Proiektua/Kontusaila	Betetakoa (%)	Irukin osagarriak
721000 72210 4701 413105 Kooperatibak berregituratzeko ekimenak sustatzea	22,4	Integrazio kooperatiboko prozesuak sustatzea, nekazaritza arloko kooperatiben sektorea berregituratzea dela eta
721000 72210 7701 413102 Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntza	92	
721000 72210 7701 413103 Arrantzaren Europako Funtsaren laguntza. FEP	0	
721001 72220 4819 413100 Irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak	77,8	Kalitatezko nekazaritza produktuen merkaturatzea hobetzeko sustapen ekimenak bultzatzea.
721002 72230 4809 412100 Nekazaritza jarduera aldeaz aurretik uztea. PDR FEADER	86,6	Nekazari berriak nekazaritzan hasia sustatzea eta dauden ustiategiak handitzea, erretiro aurreratutako laguntzen bitartez.
721002 72230 7700 412100 Nekazaritza-ustiategiaren eraginkortasuna hobetzea. PDR FEADER	73	Ustiategiaren inbertsioak egitea eta nekazari gazteak nekazaritzan ezartzea.
721002 72230 7700 412103 Makineriarako eta produkzio-bideetarako dirulaguntzak	93	Makineria kooperatiba-araubidean erostea.
721002 72230 7700 412106 (**) Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboei.	0	
722001 72320 7700 412100 Nekazaritzako elikagaien mikroenpresen dibertsifikazioa. PDR (2007-2013)	40	Nekazaritzako elikagaien industriak dibertsifikatzeko proiektuak diruz laguntza, sektoreaz kanpoko jarduerak egin ditzaten
722001 72320 7701 412100 Nekazaritzako diren jardueretarako dibertsifikazioa. PDR (2007-20)	80	Nekazaritzako elikagaien industriak dibertsifikatzeko proiektuak diruz laguntza, sektoreaz kanpoko jarduerak egin ditzaten
722001 72320 7819 412100 Leader Plus (2000-2006) FEOGA-O ekimena	50,3	Tokiko ekintzako taldeek kudeaturiko proiektuak
722001 72320 7819 412102 Leader Plus (2007-2013) FEDER ardatza	0	Tokiko ekintzako taldeekin lankidetzan jarduteko hitzarmenak
740001 74100 7609 456200 (**) Tokiko Agenda 21	100	Toki entitateen tokiko garapen proiektu jasagarrietarako dirulaguntzak
740001 74100 7709 456203 Hegazti-fauna babesteko jarduerak	87,8	Iberdrolarekiko hitzarmenak, linea elektrikoak egokitzeko hegaztiak babestearren
740002 74200 4609 456300 Toki entitateentzako kalte-ordain eta laguntzak	68,2	Babesturiko guneen irabazi lortu gabeak
740002 74200 4700 456300 Nekazaritza eta ingurumen arloetako neurriak eta konpentsatzeko kalte-ordainak. PDR FEADER	68,2	Labore-sistemak estepa-guneak mantentzearekin bateratzea eta dirusarrerak gutxitzeagatik kalte-ordainak ematea, larreen abeltzaintzarako aprobetxamendua antolamendu planen arabera egokitzeagatik.
740002 74200 6019 456300 Batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko planetarako inbertsioak	61,5	BILen kudeaketarako planen inbertsioak
740002 74200 6092 456303 Batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko planak egitea	100	BILen kudeaketarako planak egitea
740002 74200 7609 456300 Toki entitateentzako laguntzak, biodibertsitatea zaintzeko	0	
740002 74200 7609 456700 Basoari buruzko planaren dirulaguntzak toki entitateentzat. PDR FEADER	99,9	Toki entitateetan baso-jarduerak egiteko laguntzak
740002 74200 7700 456700 Nekazaritza lurra basotzea. PDR FEADER	81,4	Basoberritzea, mantentzea eta errentaren konpentsazioa, nekazaritzatik basozaintzara aldatzeagatik.
740002 74200 7700 456702 Oihan industrietarako laguntzak. PDR FEADER	73,6	Enpresa ertaintzako eta txikiak laguntzak basogintzako industriak modernizatzeko edo basozaintzarako makineria erostekoagatik.
740002 74200 7709 456702 Basoari buruzko planaren dirulaguntzak eragile pribatuentzat. PDR FEADER	84,2	Partikularren basogintza-jardueretarako laguntzak
740002 74200 7800 456300 Elkartentzako eta partikularrentzako laguntzak, biodibertsitatea zaintzeko	100	Ehiztarietarako laguntzak, ehiza antolatzeko planak egiteko eta ehizaren kalteei aurrea hartzeko eta habitata hobetzeko laguntzak
740003 74300 6019 452100 (**) Ibaiertzak lehengoratzeko eta ekosistemak babesteko	78,5	
740003 74300 7609 452100 Ibaiak hobetzea eta obra hidraulikoak.	83,9	

Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2007ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2007ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 14ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2007ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruz (PES-352/08). Hona Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduen 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 28an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

2007ko kontusailen betetze-maila

Departamentua/Programa/Proiektua/Kontusaila	Betetakoa (%)	Iruzkina osagarriak
714007000004809411102 Dirulaguntzak nekazaritza arloko komunikazio-ekintzengatik	86,7	Nekazaritzari buruzko informazioaren horniketa sustatzeko dirulaguntza
714007000004819411100 Dirulaguntzak nekazaritzaren arloko lanbide-erakundeentzat.	100	Nekazaritzako lanbide-erakundeen funtzionamenduko gastuetarako dirulaguntza
700000 71400 4819 411102 Irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak	87,9	Interesa aitortua duten ekitaldi publikoak antolatzea ardoa edo barazkiak sustatzeko
714307000016030468100 Sare meteorologikoaren eta hidrológicoaren instalazioak eta hobekuntzak.	100	Nafarroako Gobernuaren estazio meteorologikoetan eginiko inbertsioak
714307000017400468100 Sozietate publikoentzako transferentziak ikerketa proiektuetarako	90,8	Sozietate publikoen ikerketa proiektuetarako INIA delakoaren finantzaketa
712107100004700412102 Nekazariak izenpetzekoak diren erretiro-planetarako laguntzak.	100	Nekazariak eta abeltzainak izenpetutako pentsio planetarako dirulaguntza.
710000 71210 4700 412107 Uholde handiek kaltetutako azpiegitura pribatuentzako eta eragindako errenta galerentzako laguntzak	12,7	Ekaitz eta uholdeek nekazaritzaren sektorean sorturiko kalteak ordaintzeko laguntza bereziak
710001 71230 2276 414200 Nekazaritzarako laguntzen kontrola. Erakunde ordaintzailea FEAGA.	100	FEGA-FEADERek finantzaturiko laguntzen kudeaketarako gastuak.
712304700414200-414200 Konpentsatzeko kalte-ordainak PDR FEADER	99,9	Ustiategiak eskualde behartsuetan dituzten nekazari eta abeltzainen errentetarako laguntzak.
710001 71230 4700 414202 Nekazaritza eta ingurumen arloetako neurriak. PDR FEADER	64,4	Produktzio integratu eta ekologikorako dirulaguntza.
710002 71220 2279 412300 Industriarako laguntzen kontrola. Erakunde ordaintzailea FEAGA-FEADER	100	FEGA-FEADERek finantzaturiko laguntzen kudeaketarako gastuak.
710002 71220 6031 412300 Siloen sarearen egokitzea	99,9	Siloetan inbertsioak egitea
711000 71320 7700 412203 Gorpuk biltzeko edukiontzia erosteko dirulaguntza	99,5	Abere hilak biltzeko edukiontzia erosteko dirulaguntza.
711001 71310 4700 412204 Esne ekoizpenari behin betikoz uzteagatik dirulaguntza	0	

Departamentua/Programa/Proiektua/Kontusaila	Betetakoa (%)	Irukin osagarriak
711001 71310 4700 412207 Abeltzaintzako ingurumen laguntzak. PDR FEADER	86,8	Desagertzeko arriskuan dauden bertako arrazetarako eta abeltzaintza ekologikorako laguntzak
711001 71310 4819 412200 Abeltzaintza sustatzen duten elkarreentzako dirulaguntzak	99,4	Abere-hazleen elkarreentzako dirulaguntza
720000 72130 7700 417100 Ureztaketa eremu berrietarako edo daudenak hobetzeko dirulaguntzak. PDR FEADER	96,1	Lehorreko lurak ureztalur bihurtzea, ureztaketarako ekipamenduak lursailetan eta dauden ureztaketa-eremuak hobetzea.
720001 72120 6019 414300 Lurren jabetza antolatzeke eta lurzati berrantolamendua egiteko obrak. PDR FEADER.	95,1	Jabetza berrantolatzea lurzati berrantolamenduko prozesuen bitartez
720001 72120 7609 414304 Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak.	94,5	Abeltzaintzako azpiegituretarako eta titularitate eta erabilera publikoko ekipamenduetarako laguntzak.
720001 72120 7609 414305 Titularitasun publikoko nekazaritza azpiegituretan eragindako kalteak konpontzeko laguntzak	83,5	Nekazaritza-erabilerarako azpiegitura publikoetan izandako kalteak, ekaitzek edo uholdeek sortutakoak.
720001 72120 7700 414304 Labore iraunkorretan izandako galerengatik kalte-ordainak	14,2	Lurzati berrantolamenduak ukitutako labore iraunkorretako jabeentzako kalte-ordainak
721000 72210 4700 413100 Kooperatibentzako laguntzak, auditorietarako, kontabilitatea gaurkotzeko eta txostenetarako.	100	
721000 72210 4701 413100 Nekazaritza-kooperatibak berregituratzeko pizgarriak	0	
721000 72210 4701 413104 Nekazaritza-produktuak merkaturatzeko ekimenak sustatzea	74,2	Kalitatezko nekazaritza produktuen merkaturatzea hobetzeko sustapen ekimenak bultzatzeko laguntzak.
721000 72210 4701 413105 Kooperatibak berregituratzeko ekimenak sustatzea	17,6	Integrazio kooperatiboko prozesuak sustatzea, nekazaritza arloko kooperatiben sektorea berregituratzea dela eta
721000 72210 7701 413102 Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntza PDR FEADER	96	
721000 72210 7701 413103 Arrantzaren Europako Funtsaren laguntza. FEP	0	
721002 72230 4809 412100 Nekazaritza jarduera alde zuzenetik uztea. PDR FEADER	85,9	Nekazari berriak nekazaritzan hastea sustatzea eta dauden ustategiak handitzea, erretiro aurreratutako laguntzen bitartez.
721002 72230 7700 412100 (**) Nekazaritza-ustategien eraginkortasuna hobetzea. P	78,6	Ustategietan inbertsioak egitea eta nekazari gazteak nekazaritzan ezartzea.
721002 72230 7700 412103 Makineriarako eta produkzio-bideetarako dirulaguntzak	86,4	Makineria kooperatiba-araubidean erostea.
721002 72230 7700 412104 Kooperatibak berregituratzea. Mekanizazio zerbitzu integratuak ezartzeko laguntzak.	0	

Galdera, garapenerako lankidetza arloko laguntza teknikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du garapenerako lankidetza arloko laguntza teknikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 14ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du garapenerako lankidetza arloko laguntza teknikoari buruz (PES 354-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak, galderan aipatzen den garapenerako lankidetzaren arloan, laguntza teknikoko hiru kontratu egin ditu legegintzaldi honetan:

a) Lehendabizikoaren xedea zen aztertzea garapenerako nazioarteko lankidetzarako programaren baitan GGKE-ei emandako dirulaguntzei buruzko amaierako txostenak (2005eko urteko txostenak eta 2003ko eta 2004ko urteetako txostenak). Kontratu hori 2007ko ekainaren 28an sinatu zen, zegokion lizitazio prozesuaren ondoren; haren xedeko lanak 2007ko abenduaren 22an aurkeztu ziren.

b) Bigarren kontratuaren xedea izan zen 2006ko tarteko eta amaierako txostenak aztertzea, jarraitzea eta kontrolatzea. 2007ko urriaren 26an sinatu zen, eta 2008ko otsailaren 8a ezarri zen lanak emateko data gisa.

c) Bukatzeko, sinaturiko azken kontratuaren xeda da GGKE-ei emandako dirulaguntzei buruzko txosten partzialen eta amaierako txostenen (banku-abalarekin nahiz gabe) jarraipen eta kontrol lanak egitea (ordaintzeko dauden 2004tik 2008ra bitarteko espedienteak, ordainketak egin gabe dituztenak eta ixteko berme gisa jarritako abalak kitatzea behar dutenak). Kontratu hori 2008ko uztailaren 23an sinatu zen eta une honetan betetzen ari da.

Kontratu horren balizko luzatzeari dagokionez, adierazi beharra dago Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuak aurre egin beharreko espedienteen kopuru handia dela eta (urtean 300 espediente inguru, eta horiei gehitu behar zaizkie aurreko urteetatik irekita daudenak, haiek fasetan ordaindu behar baitira; horrenbestez, guztira, 500 espediente inguru), eta lortutako emaitza onak kontuan hartuta, departamentuaren ustez heldu den urtean beste kontratu bat eginen dela.

Horri dagokionez, azpimarratu beharra dago epeak laburtzea lortu dugula, entitateek dirulaguntzaren beste zati bat kobratzeko txosten partziala aurkeztzen duten unetik dirulaguntzaren zati hori ordaintzen denera arte. Horrek, nabarmena denez, finantzatutako esku-hartzeen efizientzia hobetzea dakar.

Azkenik, adierazi beharra dago gaur egun oraindik ere ez dagoela aurreikusia Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko langileen plantilla handitzea, kontuan izanda gastu publikoari zorrotz eusteko garaian gaudela. Kanpoko zerbitzuak kontratatzeraz jotzeko konponbidea oso positiboki baloratzen ari da, batetik epeak laburtzen ari direlako, eta bestetik Nafarroako GGKEak ikuspuntu instituzionaletik indartzeko prozesuetan gaitasunak sendotzeko eta laguntza lanak egiteko ekarri dituen ondorio positiboengatik.

Iruñean, 2008ko abenduaren 2an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Corellako Haur Hezkuntzako ikastetxea hartzen duen eraikinarren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Corellako Haur Hezkuntzako ikastetxea hartzen duen eraikinaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 14ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Urrian eta azaroan Corellan eroritako eurien ondorioz, Konboniarren eraikinean, egungo Corellako Alhama BHlan, non kokatuta baitago Arrese IPko haur hezkuntzako bigarren zikloa, itogin-arazoak izan dira, teilatu-hodi eta zorrotenetan ez delako garbiketa- eta mantentze-lanik egin, hain zuzen ere Haur Hezkuntzako 2. zikloa dagoen aldean.

Konboniarren eraikinaren titularitatea udalarena da guztiz, nahiz eta hartan Alhama BHla, eta toki-premiengatik, haur hezkuntzako bigarren zikloa egon. Titularra udala den arren, Hezkuntza Departamentuak, zuzenean, zenbait lan egin ditu Bigarren Hezkuntzako ikasleak dauden aldean. Azken ekitaldietan, teilaberritze lanak egin dira, bai eta eraikinaren estaldura berritzeko lanak eta hezetasunen eta uholdeen ondoriozko jarduerak ere.

Jatorriz, eraikinak euri-urak jaso, eta, eraikinaren barrenetik, lurrazpiko ur-tanga batera isurtzen zituen. Horrek hezetasun-arazo ugari sorra-razi ditu, zeren eta hodi horiek oso egoera txarrean baitzeuden. Hori dela eta, teilatua eta eraikinaren zorrotenak aldatzea erabaki zen. Zorroten horiek ura patiora isurtzen dute zuzenean, eta teorian, bertako estolda-zuloek xurgatzen dute.

Toki horrek duen beste arazo bat da bertan uso eta zikoina ugariak dituztela. Ikastetxean, zenbait jarduketa egin dira hori dela eta: eliza zaharreko kanpandorra garbitu, bertan guano ugari baitzegoen; ziriak eta sareak jartzea habiak egin ditzaten saihesteko; zikoinentzako

dorre alternatiboak eta abar. Hori guztia Hezkuntza Departamentuak egin zuen, 2006an. Hala eta guztiz ere, oraindik ere hegazti asko dago, teilatuetan zikinkeria uzten dutenak. Izan ere, zikinkeria horiek teilatu-hodietan eta zorrotenetan barna arrastatuak izan eta haiek ixteraino irits daitezke. Horixe da Haur Hezkuntzako eraikinean gertatu dena. Urri bukaerako euriek teilatu-hodiek eta zorrotenek gainezka egitea eragin dute, eta horren ondorioz ura trenkada hutsetan sartu da, zorrotena handik pasatzen baita. Hori dela eta, hezetasun eta itoginak izan dira alde horietan.

Corellako Udalak behar zen hodi-garbiketa egin du, eta konponbidea eman dio itoginen arazoari. Halaber, behin hezetasunak lehortzen direnean eta opor-garaian, kaltetutako trenkadak konpondu eta ikasgelak margotuko dira.

Bestalde, aspaldi, zenbait arrakala atzeman ziren trenkadetan, eraikinaren asentamendu-arazoen ondoriozkoak. Arrakala horien zainketa-lanak egin ziren, udalak jarritako lekuko batzuen bitartez. Halere, ez zitzaien inolako jarraipenik egin.

Haur hezkuntzako aldean dagoen arazoa baloratzeko, Obra eta Mantenimendu Zerbitzuak bilera baterako deitu zituen udala eta bi ikastetxetako zuzendaritzak. Bileran, halaber, Arrese IPko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako gurasoen elkarteak hartu zuen parte. Bileran jakinarazten da txosten tekniko bat eginen dela, prospekzio batzuen bitartez, egoera aztertze eta, horren ondorioz, konponketa lanak egin ahal izateko.

Alkatea eta udal arkitektoa ados zeudela, Hezkuntza Departamentuak eraikinaren kanpoko aldean laginak hartzeko bi zulo egiteko kontratua egin du, eraikinaren zimentazioa analizatu ahal izateko.

Zimentazioa agerian utzita, arkitekto bat bertan dela, ondorioztatu zen eraikina sakonera metro bat duen zapata korritu baten gainean eraikita dagoela, eta lur leunaren gainean bertan. Zapatan arrakala bertikalak ageri dira, eta horrek esan nahi du asentamenduetan arazo bat dagoela, euskarria ez delako behar bezain sendoa. Horren funtsezko arrazoa da patioko ura estratua garbitzen ari dela, lurra bertatik eramanez eta zapatari euskarria kenduz. Hori guztia gertatzen ari da euri-kondukzioek ez dutelako

behar bezala funtzionatzen. Hori dela eta, arkitektoaren proposamena da zapatari berriz ere euskarria jartzea eta patioko ur-irteerei konponbidea ematea.

Hezkuntza Departamentuak zimentazioari berriz ere oinarria jarriko dio, eta patioko zola

berrituko du. Halaber, euri-urak hartzeko sare egokia jarriko du, 2008ko eguberrietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 9an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Nafarroako zahar-etxeetako toki itunduei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako zahar-etxeetako toki itunduei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 14ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du zahar-etxeetako toki itunduei buruz (PES 356-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, hirugarren adinaren esparruan, 1.525 egoitza-toki dauzka, honela banatuak:

a) Zentro berekiak:

Nafarroako Mendekotasun Agentziaren pean:

– El Vergel: 165

– Santo Domingo: 110

Osasunbidea–Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren pean:

– Zentro psikogeriatrikoa: 185

Zentro horiek titularitate eta kudeaketa publikoak dira; horrenbestez, dauzkaten tokiak ez daude itundurik, normala den bezala. Toki horietako bakoitzaren batez besteko prezioa hileko 2.980 eurokoa da.

b) Toki itunduak:

Nafarroako Mendekotasunaren Agentziak, gainera, 1.065 toki itundu dauzka; horietatik 142 titulartasun publikoko entitateekin itunduta daude. Horietatik soilik 20, Irunberriko San Isidro Egoitzarekin itunduak, Nafarroako Administrazio Publikoak zuzenean kudeatzen ditu; kasu honetan, Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

Kostuari dagokionez, adierazi beharra dago kudeaketa pribatuko egoitzetako toki bakoitzaren batez besteko prezioa hileko 1.750 eurokoa dela; toki psikogeriatrikoetan, aldiz, kostua 1.837 eurokoa da.

Halaber, 1.533 eurokoa da egoitza-tokien batez besteko prezioa titulartasun publikoko eta kudeaketa pribatuko egoitzetan.

Azkenik, adierazi beharra dago, toki itunduak dituen eta titulartasun eta kudeaketa publikoak dituen egoitza bakarra dagoela; haren tokiak psikogeriatrikoak dira, eta tokiaren batez besteko kostua hileko 1.951.56 eurokoa.

Iruñean, 2009ko azaroaren 5ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Endarlatsa inguruan gertatzen ari diren harri-erorketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Endarlatsa inguruan gertatzen ari diren harri-erorketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 21eko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Proiektuko segurtasun planean jasotako neurri guztiak hartu dira aintzat; honakoak, besteak beste:

– Trafikoa moztea, trafikoan eragina izan dezaketan leherketak edo indusketak egin beharreko tartean, semaforoan edo seinalegileen bidez.

– Defentsa-neurriak (hormak eta saretak) jar-tzea materiala errepidera eror ez dadin.

– Ibilgailuei txandaka pasatzen uztea.

2.- 2009ko otsailaren bukaerarako leherketak bukatzea aurreikusita dago. Ordura bitartean, segurtasun arrazoiengatik, ibilgailuei txandaka utziko zaie pasatzen.

3.- Aldaketak:

Igantzi-Etxalar tartean

Egituraren baten tipologia aldatu da, baina aldaketa horrek ez du eraginik izan ez epean ez prezioan.

Etxalar-Bera tartean

Egituraren baten tipologia aldatu da, baina aldaketa horrek ez du eraginik izan ez epean ez prezioan.

Matxain baserriaren aldean, sestra aldatu da, Bera-Lesaka adarraren pendiza eta Navasturen zentralaren aldeko pasabidea hobetzeko.

Larrezabal aldean, lotura-gunearen tipologia aldatu da, galibo handiagoa lortzeko eta lotura-gune hori funtzionalagoa izan dadin.

Aldaketek ez dute prezioaren igoerarik ekarri hiru kasuetako bakarrean ere.

Bera-Endarlatsa tartean

Egituraren baten tipologia aldatu da, baina aldaketa horrek ez du eraginik izan ez epean ez prezioan.

Industrialdeko lotura-gunearen tipologia aldatu da, haren funtzionaltasuna hobetzeko. Aldaketak ez du handitzerik ekarri ez epean, ez prezioan.

4.- Eskatutako dokumentazioa erantsi dugu.

5.- 2008ko urriaren 30ean, ez da inongo igoerarik izan obretako aurrekontuetan, eta ez da izapidetu, ezta ere, haien epea luzatzeko eskaririk.

Aurreikuspen gisa, adierazitako datan, esan beharra dago aurreikusita dagoela Bera-Endarlatsa tartean lubetei eusteko proiektu osagarri bat, 1.700.000 euroko kostua izanen duena eta epea luzatzea ekarriko ez duena.

Ondoko tartetean, hiru hilabete inguruko atzerapena egiaztatu dugu: Igantzi-Etxalar eta Etxalar-Bera. Hala eta guztiz ere, atzerapen horiek ezin zaizkio kontratistari guztiz egotzi.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 10ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00359 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, zahar-etxeetako toki itunduei, itxaron zerrendei eta eskari handieneko eremuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du zahar-etxeetako toki itunduei, itxaron zerrendei eta eskari handieneko eremuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 21eko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du zahar-etxeetako toki itunduei, itxaron zerrendei eta eskari handieneko eremuei buruz (PES 357-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun departamentu honek, Nafarroako Mendekotasun Agentziaren bitartez, honako egoitza-toki itunduak ditu zaharrentzako egoitzetan:

ZENTROA	TOKI MOTA	PLAZA KOPURUA
Aita Barandiaran	Egoitza lagundua	35
	Berez baliatzen direnendako egoitza	0
	GUZTIRA	35
Benito Menni	Egoitza psikogeriatricoa	45
	GUZTIRA	45
Padre Menni	Egoitza psikogeriatricoa	30
	Eguneko zentro psikogeriatricoa	30
	GUZTIRA	60
Amma Ibañeta	Lagunduriko toki iraunkorrak	10
	Lagundutako tokiak, aldi baterakoak	4
	Familientzako tokiak	3 bikote
	Eguneko zentro lagundua	0
	GUZTIRA	20
Landazábal	Egoitza lagundua	92
	Egoitza lagundua, aldi baterakoa	4
	Familientzako egoitza	2 bikote
	Eguneko zentroa	26
	GUZTIRA	126
Luz de Estella	Egoitza lagundua	104
	Eguneko zentro lagundua	0
	GUZTIRA	104
Mirador	Egoitza lagundua, aldi baterakoa	20
	Egoitza lagundu finkoa	25
	GUZTIRA	45

ZENTROA	TOKI MOTA	PLAZA KOPURUA
Miranda	Egoitza lagundua	23
	Berez baliatzen direnendako egoitza	0
	Eguneko zentro lagundua	0
	Eguneko zentroa, berez baliatzen direnzentzat	0
	GUZTIRA	23
Erruki Etxea	Egoitza lagundua	86
	Eguneko zentro lagundua	15
	Familientzako egoitza	2 bikote
	Eguneko zentrorako garraioa	0
	Berez baliatzen direnendako egoitza	0
	GUZTIRA	105
Mutiloa	Egoitza lagundua	91
	Egoitza lagundua, aldi baterakoa	5
	Familientzako egoitza	7 bikote
	Eguneko zentro lagundua	0
	GUZTIRA	110
San Adrián	Egoitza lagundua	99
	Egoitza lagundua, aldi baterakoa	3
	Familientzako egoitza	4 bikote
	Eguneko zentroa	
	GUZTIRA	110
San Francisco	Egoitza lagundua	54
	Berez baliatzen direnendako egoitza	0
	GUZTIRA	54
San Manuel	Berez baliatzen direnendako egoitza	15
	Egoitza lagundua	55
	Eguneko zentro lagundua	0
	GUZTIRA	70
Victoria Myr	Egoitza lagundua	8
	GUZTIRA	8
Vaguada	Egoitza lagunduko tokiak	42
	Egoitza lagunduko tokiak, aldi baterakoak	8
	Eguneko zentro psikogeriatricoa	20
	Eguneko zentroa (garraioa)	0
	Eguneko zentro lagundua	0
	GUZTIRA	70
Amma Oblatas	Egoitza lagundua	50
	Eguneko zentro lagundua	0
	GUZTIRA	50
San Isidro	Egoitza psikogeriatricoa	30
	Menpekotasuna dutenentzako eta	0
	GUZTIRA	30

Egun dagoen itzarote-zerrendari dagokionez, ondoko taulan ematen dugu hari buruzko informazioa:

Toki mota	Baloratu gabe	Mendekotasunik ez dutenak	Menpekotasun moderatua dutenak	Mendekotasun larria dutenak	Mendekotasun handia dutenak	GUZTIRA
Eguneko zentroa, lagunduentzat	0	0	2	5	2	9
Eguneko zentro psikogeriatrikoa	13	3	13	37	20	86
Lagunduak	17	9	32	37	68	163
Egunez egotekoak	0	1	2	1	0	4
Lagunduentzako familia-tokiak	1	0	10	4	4	19
Baliatzen direnentzako tokiak	8	2	3	0	0	13
Psikogeriatrikoa (D.K.)	5	2	4	8	23	42
Psikogeriatrikoa (B.G.)	1	2	5	1	0	9
Psikogeriatrikoa (Tox.)	1	0	0	0	0	1
Lagunduentzat, aldi baterako	0	0	0	1	0	1
Baliatzen direnentzat	102	27	1	1	1	132
Baliatzen direnentzat (Tox.)	2	0	0	0	0	2
	148	46	72	95	118	481
<i>%, guztiaren gainekoa</i>	<i>% 31</i>	<i>% 10</i>	<i>% 15</i>	<i>% 20</i>	<i>% 25</i>	

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Torrespapel taldearen egoerari eta horrek Leitzako fabrikan etorkizunean izan dezakeen eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Torrespapel taldearen egoerari eta horrek Leitzako fabrikan etorkizunean izan dezakeen eraginari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 21eko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Torrespapel Taldearen egoerari buruz (PES-00358). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Planteatutako galderari dagokionez, esan dezaket Torrespapel Taldea papera ekoizten eta banatzen espezializatutako konpainia bat dela, eta, Condat eta Cartiere del Garda sozietateekin batera, paper estukatua ekoizten duen Europako bigarren taldea osatzen duela.

Torrespapel taldeak bederatzi ekoizpen-planta ditu Espainian, eta haien produkzio-ahalmena milioi bat tona baino handiagoa da.

170.000 tona baino gehiagoko ekoizpen-ahalmena duen Leitzako plantaz gainera, beste planta

batzuk badaude, honako tokietan: Algeciras, Almazán, Amorebieta, Motril, Sant Joan les Fonts, Sarriá de Ter, Uranga eta Zaragoza.

Torras Taldeak joan den azaroan iragarri zuen Espainiako egitura berrantolatuko duela, eta ekoizpena gutxitu egingen duela 160.000 tonatan; plantillan, berriz, 400 langile gutxiago egonen dira.

Zuzendaritzak zehaztu zuen erabaki horrek Espainian diren bederatzi plantetatik hirutan izanen duela eragina. Honakoetan, hain zuzen: Sarriá de Ter (Girona), Algeciras (Kadiz) eta Amorebieta (Bizkaia). Horietako lehenbizikoak produkzioa gutxituko du eta gainerako biek, berriz, lan egiteari utziko diote.

Torras Taldeak adierazi zuen une horretan bertan gainerako plantek, besteak beste Leitzakoak, "normaltasunez lan egiten jarraituko dutela".

Horrenbestez, Torras Taldeak ez dio Nafarroako Gobernuari ofizialki inolako funtsezko aldaketarik jakinarazi foru erkidegoan dagoen plantako jarduerari dagokionez, ez eta bertako lan-harremanei dagokienez ere.

Horri dagokionez, gehitu beharra dago, heda-bideetan jasotako informazioak kontuan hartuta, Leitzako plantak partzialki har litzake bere gain Bizkaiko planta ixteak ekarriko duen plantillaren soberakina –53 pertsona–.

Iruñean, 2008ko abenduaren 10ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, zaharrentzako egoitza pribatuetako langile kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du zaharrentzako egoitza pribatuetako langile kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 21eko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du kudeaketa pribatuko zahar-etxeetako langile kopuruari buruz (PES 360-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Eceolaza jaunak informazioa eskatu du Nafarroan zahar-etxeetan lan egiten duten langileen kopuruari buruz. Informazio hori emateko xedez, ondoko taula prestatu dugu:

Izena	Herria	Profil teknikoa	Zaintzaileak+ Zerb. Orok.	Bestelakoak
PADRE MENNI, KLINIKA PSIKIATRIKOA (EGOITZA PSIKOGERIATRIKOA)	IRUÑA	15	38	6
BENITO MENNI, ZENTRO PSIKOGERIATRIKOA	ELIZONDO	9	40	13
LUZ DE ESTELLA, EGOITZA GERIATRIKOA	LIZARRA	7	47	2
SAN ADRIÁN, MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN AGUREENTZAKO EGOITZA	SAN ADRIÁN	14	81	8
SANITAS RESIDENCIAL MIRADOR	IRUÑA	14	55	10
LANDAZÁBAL, EGOITZA	BURLATA	9	31	8
AMMA MUTILVA, ZENTRO GERONTOLOGIKOA	MUTILOAGOITI	17	77	12
"LA VAGUADA" EGOITZA	IRUÑA	21	86	5
AMMA OBLATAS	IRUÑA	17	90	5
BELOSO ALTO EGOITZA	IRUÑA	19	84	10
SAN ISIDRO, ZAHARRENTZAKO EGOITZA	IRUNBERRI	7	47	2
VIRGEN DE JERUSALÉN, ZAHAR ETXEA	CÁRCAR	1	13	1
AITA BARANDIARAN ZAHARRENTZAKO EGOITZA	ALTSASU	3	17	2
SAN JOSÉ EGOITZA (BERA)	BERA	3	14	
ANDRA MARI, ZAHARRENTZAKO EGOITZA	LESAKA	3	9	2
SANTA ELENA, EGOITZA	BARASOAIN	3	7	2
SANTA TERESA JORNET, ZAHAR-ETXEA	GERENDIAIN (ULTZAMA)	5	10	2
SAN JOSÉ, ZAHARRENTZAKO EGOITZA (AGOITZ)	AGOITZ	2	16	2
SAN VICENTE PAUL, UDALAREN ZAHAR-ETXEA	ZANGOZA	3	18	5
NUUESTRA SEÑORA DEL ROSARIO, EGOITZA	CASCANTE		20	4
LA MILAGROSA, ZAHAR ETXEA	ERRIBERRI	3	14	4
ERRUKI ETXEA, TUTERAKO ZAHAR ETXEA	TUTERA	6	26	13
SAN FRANCISCO DE ASÍS EGOITZA	CINTRUÉNIGO	11	41	8
VIRGEN DEL PORTAL, ZAHAR ETXEA	VILLAFRANCA	3	14	3
SAN JOSÉ EGOITZA	CORELLA	5	7	4
SAN JOSÉ, EGOITZA (VALTIERRA)	VALTIERRA	2	7	1
CARMEN BELLIDO ZAHAR ETXEA	CORTES	3	20	4
San Raimundo, zahar etxea	FITERO		19	2
SAN GREGORIO, ZAHAR ETXEA	BUÑUEL		10	4
"SOLIDARIDAD" EGOITZA MISTOA	CASTEJÓN	1	13	2
SAN FRANTZISKO XABIERKOA, EGOITZA	FALTZES	3	8	2
SAN MIGUEL, EGOITZA (FUNES)	FUNES	3	12	1

Izena	Herria	Profil teknikoa	Zaintzaileak+ Zerb. Orok.	Bestelakoak
SAN JERÓNIMO, ZAHARRENTZAKO EGOITZA	LIZARRA	4	14	1
SANTA ZITA EGOITZA	SAN MARTIN UNX	6	10	1
Betania, zaharrentzako egoitza	MURUZABAL	2	13	1
SAN FRANTZISKO XABIERKOA, ZAHAR ETXEA	TAFALLA	4	21	6
VIRGEN DEL CARMEN, ZAHARREN EGOITZA	SESMA	3	13	4
LODOSAKO ZAHAR-ETXEA	LODOSA	9	22	6
NUESTRA SEÑORA DE GRACIA EGOITZA	VIANA	3	31	5
FRANCISCO JOAQUÍN IRIARTE, ZAHAR ETXEA	ELIZONDO	6	32	11
CIUDAD JARDÍN, ZAHAR ETXEA	SARASA	3	42	6
ERRUKI ETXEA, ZAHAR ETXEA	IRUÑA	27	232	30
NUESTRA SEÑORA DE LA CARIDAD, OSPITALEA	TAFALLA	5	17	
SAN MIGUEL, EGOITZA	AZKOIEN	4	14	2
SAN MANUEL Y SAN SEVERINO, ZAHAR ETXEA	TAFALLA	6	38	6
SAN FERMIN, ZAHAR ETXEA	IRUÑA	12	24	8
OBLATAS, EGOITZA GERIATRIKOA	IRUÑA	2	3	1
SALUS INFIRMORUM, ZAHAR ETXEA	BURLATA	7	6	
SANTA MARÍA ZAHAR ETXEA	LOS ARCOS	2	9	2
NUESTRA SEÑORA DEL PILAR, EGOITZA	LERIN	2	9	2
VIRGEN DE JERUSALÉN, ZAHAR ETXEA	ARTAXOA	1	17	
NUESTRA SEÑORA DE GRACIA, EGOITZA	TUTERA	5	33	3
JOSE RAMÓN ZALDUENDO	CAPARROSO	6	8	1
NUESTRA SEÑORA DEL ROSARIO, EGOITZA	ZARRAKAZTELU	5	11	1
AMMA IBAÑETA	ERRO	4	14	5
COMPLEJO RESIDENCIAL EL PINAR	MILAGRO	2	12	3
SAN BARTOLOME EGOITZA	MARTZILLA	5	11	2
RESIDENCIAL SAN FRANCISCO JAVIER, MANKOMUNITATEA	FUSTIÑANA	2	11	2
TOMÁS, LYDIA Y JAVIERA RECARI ZAHAR-ETXEA	KASEDA	5	7	5
LAS AMÉSCOAS, ZAHAR ETXEA	EULATE	3	9	1
DIONISIO SALCEDO SÁDABA ZAHAR-ETXEA	MENDABIA	7	15	1
AMMA BETELU, ZAHAR ETXEA	BETELU	4	16	1
AMMA ARGARAY, ZAHAR ETXEA	IRUÑA	18	60	5
SAN SEBASTIÁN EGOITZA	ANDOSILLA	5	11	3
VIRGEN DE JERUSALÉN, ZAHAR ETXEA	MIRANDA-ARGA	3	15	3
ZARAITZU IBARREKO ZAHAR-ETXEA	OTSAGABIA	1	6	1
LAS ANGÉLICAS, EGOITZA GERIATRIKOA	IRUÑA	1	4	
GUZTIRA		396	1801	278

Iruñean, 2008ko abenduaren 10ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako
kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, jakiteko zergatik dagoen gaztelania hutsean Nafarroako Gobernuaren turismo-marka Labrit frontoian.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik dagoen gaztelania hutsean Nafarroako Gobernuaren turismo-marka Labrit frontoian.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 21eko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik dagoen gaztelania hutsean Nafarroako Gobernuaren turismo-marka Labrit frontoian (PES 362-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehenbizi, eta beste ezer baino lehenago, zehaztu beharra dago Labrit Frontoia Iruñeko Udalarena dela, eta haren kudeaketa, berriz, Nafarroako Euskal Pilota Federakuntzak esleituta duela. Federazio horrek egoitza frontoian bertan dauka, eta hari dagokio bertan jartzen diren kartelen eta publizitatearen ardura.

Horri dagokionez, Nafarroako Euskal Pilota Federakuntzak, institutu honek informazioa eska-

tuta erantzun du Reyno de Navarra-Tierra de Diversidad (gaztelaniaz) logotipoa duten eranskailuak eta Nafarroako Erresuma Lur Anitza (euskaraz) logotipoa duten eranskailuak erabili dituela, 150x70 cm-koak, Nafarroako Federazioak Iruñeko Labrit frontoian antolatu dituen txapelketa guztietan: San Fermin Txikito, Nafarroa-Reunión Uhartea Nazioarteko Txapelketa, Espainiako Federazioen arteko Txapelketa.

Halaber, publizitate hori bera honakoetan erabiltzen da:

– Nafarroako Federazioak Mendillorriko Trinkean (Iruñean) antolatzen dituen txapelketa guztietan: Trinketeko Iruña Hiria txapelketa, Espainiako Trinkete Txapelketak.

– Nafarroan egiten diren afizionatuen egutegi-ko txapelketa garrantzitsuetan, haietan Nafarroako Federazioak laguntzen duenean.

– Esku-pilotako modalitatean, ondoko frontoietan: Altsasuko Santo Cristo de Otadia, Bost Kirol, Lodosako Angustias, Irurtzun, Uharte-Arakil, Doneztebe, Arrotxapea, Lizarra, Burlata, Leitza.

– Paleta gomazko modalitatean: López Frontoia, San Adrián eta Lesaka.

– Zesta punta modalitatean: Noain eta Cabanillas.

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 21eko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du "Familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea" kontusailari buruz (PES 363-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehendabizi, beste ezer baino lehen, zehaztu beharra dago 2008ko gastuen aurrekontuan ez dagoela inolako kontusailik izen horrekin.

Hala eta guztiz ere, izen hori erabili izan denez 2009ko ekitaldiko aurrekontuen proiektuko kontusail bat izendatzeko, ekitaldi honi buruz ematen dugun informazioa kode bera daraman kontusailari dagokion, hau da, "Familia politiken jarraipena eta garapena" izeneko 950001-92200-2276-231502 kontusailari.

Kontusail horrek 44.342,00 euroko hasierako kreditua izan zuen.

Honakoak dira kreditu horrekin finantzatu diren ekintzak:

– Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren arteko lankidetzahitzarmena, 12 urtez beherako seme-alaben gurasoei "familia, telebista eta beste pantaila batzuk" izeneko taillera eta 12 eta 16 urte bitarteko seme-alaben gurasoei "familia eta teknologia berriak" izeneko taillera emateko: 12.000 euro

– Idatzizko komunikabideetan Familiaren Nazioarteko Eguna zabaltzea: 4.362,20 euro

– Herritarrei Familia, Haur eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusiak ematen dituen zerbitzuei buruzko informazioa ematea eta zerbitzu horien zabalkundea egitea: 1.874,40 euro

– Laguntza administratiboa ama langileen laguntzen deialdiari erantzuteko. 7.370,70 euro

– Haur eskolak programarako laguntza administratiboa: 17.549,84 euro

2009ko ekitaldirako aurrekontuen proiektuan izen horrekin sartu den kontusailari dagokionez, esan beharra dago 16.000 euroko hasierako aurrekontua ezarri dela.

Aurrekontu kreditu horrekin finantzatu nahi dira Familiaren Nazioarteko Egunarekin eta Haurtzararen Mundu Egunarekin lotutako ekitaldiak eta familiei, gurasoei edo/eta gurasoei eta seme-alabei zuzendutako prestakuntza-ekintzak.

Iruñean, 2008ko abenduaren 10ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, NA-6900 errepideko eta NA-6710 errepideko tarte jakin batzuk asfaltatze aldera betetako gastuari buruzkoa eta gastua zer kontusaili egotzi zaion jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du NA-6900 errepideko eta NA-6710 errepideko tarte jakin batzuk asfaltatze aldera betetako gastuari buruzkoa eta gastua zer kontusaili egotzi zaion jakitekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko abenduaren 10eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako José María Vázquez Royo jaunak jaunak galdera egin du. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Ondokoak dira, hurrenez hurren, aipatu errepideak asfaltatzeko exekutatu diren gastuak:

– NA-6900 errepidea, Fiterotik hasi eta N-113 errepidera arte: Kontratua exekutatzeko aurrekontua (BEZa barne): 138.836,50 euro.

– NA-6710 errepidea, Murchantetik hasi eta NA-6830 Erromatarren Bidea errepidera arte: Kontrata exekutatzeko aurrekontua (BEZa barne): 100.964,36 euro.

2.- Kopuru horiek honakoei egotzi zaizkie, hurrenez hurren:

– NA-6900 errepidea, Fiterotik hasi eta N-113 errepidera arte: Tuterako Barrutiko errepideen zainketa integralaren kontratuko 2008ko ordainketaren kargura (621001/61210/6010/453305 kontusaila).

– NA-6710 errepidea, Murchantetik hasi eta NA-6830 Erromatarren Bidea errepidera arte: Tuterako Zainketa Zentroko errepideen zoladuraren zainketa eta zaharberritze kontratuaren kargura (621001/61210/6010/453300 kontusaila).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 10ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroa 2012 Plana betetzen dela kontrolatzeko izendatutako 26 agenteen izen-abizenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroa 2012 Plana betetzen dela kontrolatzeko izendatutako 26 agenteen izen-abizenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 21eko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroa 2012 Planeko arduradunak diren 26 eragileei buruz. Hona erantzuna:

Iruñean, 2008ko abenduaren 16an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

NAFARROA 2012 PLANA | ERAGILE ARDURADUNAK

ERAGILE ARDURADUNA	ERAKUNDE ARDURADUNA	DEPARTAMENTUA	PROIEKTUAK
Andrés Eciolaza Carballo	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Ibaitako ibilgu eta bazterrak garbitzea
Andrés Eciolaza Carballo	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Pirinioetako baso azpigiturak
Andrés Sola Olo	NILSA	Toki Administrazioiko Departamentua	Nafarroako Ibaietako Saneamendu Plana
Ángel Sanz Barea	TRACASA	Ekonomia eta Ogasun Departamentua	TRACASako eraikin zentrala
Begoña Rodríguez Marcos	Nafarroako Mendekotasun Agentzia	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Sarrigurengo ezgaituentzako zentro berria
Begoña Rodríguez Marcos	Nafarroako Mendekotasun Agentzia	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Lizarrako Santo Domingo zahar etxea
Begoña Rodríguez Marcos	Nafarroako Mendekotasun Agentzia	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Sarrigurengo adimen osasuneko egoitza
Begoña Rodríguez Marcos	Nafarroako Mendekotasun Agentzia	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Iruñeko adimen osasuneko egoitza
Begoña Rodríguez Marcos	Nafarroako Mendekotasun Agentzia	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Tuterako adimen osasuneko egoitza
Begoña Rodríguez Marcos	Nafarroako Mendekotasun Agentzia	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Lizarrako adimen osasuneko egoitza
Begoña Rodríguez Marcos	Nafarroako Mendekotasun Agentzia	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Oncineda ezgaituentzako zentroa berritzea. Lizarra
Begoña Rodríguez Marcos	Nafarroako Mendekotasun Agentzia	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Ilundaingo adingabeen zentroa
Carlos Erce Eguaras	Turismoko Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Entzierroaren eta Sanferminen Museoa (Iruñearekiko hitzarmena, % 80)
Carlos Erce Eguaras	Turismoko Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Orreagako erromesentzako aterpetxe orokorra
Carlos Erce Eguaras	Turismoko Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Nafarroako Santiago Bidea egokitzeko plana
Fernando Balduz; arduraduna, José Luis Moreno	Nafarroako Ospitaleko Zuzendaritza	Osasun Departamentua	Nafarroako Ospitaleko C pabilioia birmoldatzea
Fernando Balduz; arduraduna, José Luis Moreno	Nafarroako Ospitaleko Zuzendaritza	Osasun Departamentua	Nafarroako Ospitaleko Larrialdietarako eraikina

NAFARROA 2012 PLANA | ERAGILE ARDURADUNAK

ERAGILE ARDURADUNA	ERAKUNDE ARDURADUNA	DEPARTAMENTUA	PROIEKTUAK
Fernando Balduz; arduraduna, José Luis Moreno	Nafarroako Ospitaleko Zuzendaritza	Osasun Departamentua	Nafarroako Ospitaleko ikerketa zentro berria
Francisco Javier Esparza Sánchez	Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak	Hezkuntza	MUSIKAREN HIRIA Kontserbatorioa
Francisco Javier Esparza Sánchez	Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak	Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako institutuak zabaltzea eta berriak egitea
Francisco Javier Esparza Sánchez	Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak	Hezkuntza	Ikastetxeetako plana
Germán Beroiz Soria	Ciudad Agroalimentaria de Tudela S.A.	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Tuterako Nekazaritza elikagaien Hiria
Idoia Madariaga López	NASURSA	Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua	Pirinioen Plana. Berariazko jarduketak
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Hiria El Garitón NUP
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Izarreibarko Industrialdea
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Elortzibarko Industrialdea
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Urdiaingo Industrialdea
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Noaingo Industrialdea (antzinako Posusa)
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Lodosako Industrialdea
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Cortesko Industrialdea
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Rocaforte Zangozako Industrialdea Handitzea
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Irunberriko Industrialdea
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Artaxoako Industrialdea
Ignacio Nagore Lain	NASUINSA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Deikazteluko Industrialdea
José Ángel Zubiaur	Ondarearen Zuzendaritza Nagusia	Ekonomia eta Ogasun Departamentua	Lekarozko Erabilera Anitzeko Zentroa
José Ángel Zubiaur	Ondarearen Zuzendaritza Nagusia	Ekonomia eta Ogasun Departamentua	González Tablas kaleko eraikin administratibo berria
José Ángel Zubiaur	Ondarearen Zuzendaritza Nagusia	Ekonomia eta Ogasun Departamentua	Ogasunaren Erredentziotarren eraikin berria
José Javier Esparza Abaurrea	SPRIN	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIK	Nafarroako Kiroldegia
José Luis Echávarri Arraiza	CANASA	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Nafarroako Ubidea

NAFARROA 2012 PLANA | ERAGILE ARDURADUNAK

ERAGILE ARDURADUNA	ERAKUNDE ARDURADUNA	DEPARTAMENTUA	PROIEKTUAK
José Luis Echávarri Arraiza	Herri Lanen Zuzendaritza Nagusia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Errepide=sareko Jarduerak Azkartzeko Plana. 29 jarduketa.
José Luis Echávarri Arraiza	Herri Lanen Zuzendaritza Nagusia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	A 21 Pirinioko Autobidea. Judasen Benta Esa tartea.
José Luis Echávarri Arraiza	Herri Lanen Zuzendaritza Nagusia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	A.21 Pirinioko Autobia. Esa Nafarroako muga
José Luis Echávarri Arraiza	Herri Lanen Zuzendaritza Nagusia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Erroko eta Mezkirizko tunelak.
José Luis Echávarri Arraiza	Sustapen Ministerioa	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	A 12 Bideko Autobia Logroñorekin lotzea
José Luis Echávarri Arraiza	Herri Lanen Zuzendaritza Nagusia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	A 15 autobia, Medinaceli Soria Tutera. Tutera Nafarroako muga tartea
José Luis Echávarri Arraiza	Herri Lanen Zuzendaritza Nagusia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Abiadura handiko tren. Nafarroako Gobernu
José Luis Echávarri Arraiza	Sustapen Ministerioa	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Abiadura handiko tren. Sustapen Ministerioa
José Luis Echávarri Arraiza	Abiadura Handia Iruñeko Hiria Partzuergoa	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Iruñerriko Abiadura Handiko lanei buruzko udalez gaindiko plan sektoriala Partzuergoa
José Luis Echávarri Arraiza	ADIF	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Iruñerriko Abiadura Handiko lanei buruzko udalez gaindiko plan sektoriala ADIF
José Luis Moreno	Osasunbideko Gerentzia	Osasun Departamentua	Ubarmin Klinikako kirurgia eremuak birmoldatzea
José Luis Moreno	Osasunbideko Gerentzia	Osasun Departamentua	Tuterako osasun barrutiko kirurgia eremuak birmoldatzea
José Luis Moreno	Osasunbideko Gerentzia	Osasun Departamentua	Zentro Psikogeriatrikoko Plan Zuzendaria
José Luis Moreno	Osasunbideko Gerentzia	Osasun Departamentua	Osasun Etxeak Zabaltzeko Plana
José María Aracama	SODENA	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Mendillorriko jauregia. SODENA
Juan Ramón Rábade Iraizoz	Barne Zuzendaritza Nagusia	Lehendakaritza, Barne eta Justizia Departamentua	SEGURTASUNAREN HIRIA
Juan Ramón Rábade Iraizoz	Barne Zuzendaritza Nagusia	Lehendakaritza, Barne eta Justizia Departamentua	Elizondoko polizia etxe berria
Luis Larraya; arduraduna: José Luis Moreno	Osasunbideko Gerentzia	Osasun Departamentua	Irudi Medikoa Zentro Nazionala. ICTS
Luis Larraya; arduraduna: José Luis Moreno	Osasunbideko Gerentzia	Osasun Departamentua	Nafarroako Medikuntza Teknologia Gunea

NAFARROA 2012 PLANA | ERAGILE ARDURADUNAK

ERAGILE ARDURADUNA	ERAKUNDE ARDURADUNA	DEPARTAMENTUA	PROIEKTUAK
María Begoña Urien Angulo	Enpresako Zuzendaritza Nagusia	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	2. Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionala ICTS Agoitz
María Begoña Urien Angulo	Enpresako Zuzendaritza Nagusia	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Lizarrako arte grafikoen zentro teknologikoa
María Begoña Urien Angulo	Enpresako Zuzendaritza Nagusia	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Lurreko Telebista Digitalerako Azpiegituren Plana
María Begoña Urien Angulo	Enpresako Zuzendaritza Nagusia	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Epe Luzeko Telekomunikazioen Plana
Miguel Ángel Pascual	MIYABI	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	Sarrigurengo Berrikuntzaren Kuboak
Miguel Ángel Pascual	MIYABI	BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	110 etxebizitza domotiko eta bioklimatikoren sustapena
Miguel Horta Sicilia	RICAN, S.A.	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Nafarroako Ubideko ureztaketa. 1. fasea.
Miguel Horta Sicilia	Riegos de Navarra S.A.	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Lurzatiak instalazioak. Nafarroako Ubideko I. sektoretik X. sektorera
Miguel Horta Sicilia	Riegos de Navarra S.A.	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Estellerriko ureztalurren eremu berria
Miguel Horta Sicilia	Riegos de Navarra S.A.	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Valtierrako ureztaketa modu tradizionalak modernizatzea
Miguel Horta Sicilia	Riegos de Navarra S.A.	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Ablitasko ureztaketa modu tradizionalak modernizatzea
Miguel Horta Sicilia	Riegos de Navarra S.A.	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Falcesko ureztaketa modu tradizionalak modernizatzea
Miguel Horta Sicilia	Riegos de Navarra S.A.	LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	Cortesko ureztaketa modu tradizionalak modernizatzea
Pablo Romera Alonso	SPRIN	Ekonomia eta Ogasun Departamentua	Los Arcosko Abiadura Handiko Zirkuitua
Pablo Romera Alonso	SPRIN	FAMILIA, GAZTERIA, KIROLA ETA GIZARTE GAIAK	Errokariko Ipar Eskiko Zentroa
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Liburutegietan eta Artxiboetan Inbertsioak egiteko Plana
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Martzillako Gaztelua
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Fiteroko Monasterioa zaharberritzea
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Lizarrako San Pedro eliza zaharberritzea
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Iruñeko Gotorlekua kanpotik zaharberritzea
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Uxueko Santa Maria. Abade etxea, barnealdea eta 4. fasea.
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Iruñeko Katedraleko kanpoko aldeko pinakuluak eta argiteria
Pedro Luis Lozano Úriz	Kulturako Zuzendaritza Nagusia	KULTURA ETA TURISMOA	Rozalejoko markesaren jauregia zaharberritzea

NAFARROA 2012 PLANA | ERAGILE ARDURADUNAK

ERAGILE ARDURADUNA	ERAKUNDE ARDURADUNA	DEPARTAMENTUA	PROIEKTUAK
Luis Cruchaga	VINSA	Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua	Etxebizitza Babestua Sustatzeko Plana. 15.000 BOE eraikitzea (VINSAk zuzenean 2.500 etxebizitza sustatzea)
Roberto Rubio Torrano	Justiziako Zuzendaritza Nagusia	Lehendakaritza, Barne eta Justizia Departamentua	Tuterako epaitegien eraikin berria
Roberto Rubio Torrano	Justiziako Zuzendaritza Nagusia	Lehendakaritza, Barne eta Justizia Departamentua	Lizarrako epaitegien eraikin berria
Roberto Rubio Torrano	Justiziako Zuzendaritza Nagusia	Lehendakaritza, Barne eta Justizia Departamentua	Iruñeko justizia jauregia zabaltea.
Susana Labiano Bastero	Garraioetako eta Agentzia Logistikoko Zuzendaritza Nagusia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Iruñeko Garraioaren Hiria, 4. fasea
Susana Labiano Bastero	Nafarroako Logistikaren Agentzia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Nafarroako beste logistika eremu batzuk
Susana Labiano Bastero	Garraioetako eta Agentzia Logistikoko Zuzendaritza Nagusia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Iruñeko Garraioaren Hiria, 3. fasea
Susana Labiano Bastero	Nafarroako Logistikaren Agentzia	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	Tuterako logistika eremua
Susana Labiano Bastero	Aireportu Hiria Partzuergoa	HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	AIREPORTU HIRIA
Uxua Berruezo; arduraduna: José Luis Moreno	Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zuzendaritza	Osasun Departamentua	Bideko Ama Birjina Ospitaleko kirurgia eremuak birmoldatzea
Uxua Berruezo; arduraduna: José Luis Moreno	Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zuzendaritza	Osasun Departamentua	Bideko Ama Birjina Ospitaleko Ama haurrentzako Larrialdietarako Zerbitzua birmoldatzea

Galdera, Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta bide berdeen moduan erabili ahal izateko plana eta Nafarroan dauden bide berdeetarako plan integrala prestatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta bide berdeen moduan erabili ahal izateko plana eta Nafarroan dauden bide berdeetarako plan integrala prestatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen, batetik, plan bat egin zezan Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratzeko eta oinezkoentzako, kiroletarako eta orokorrean bide berdeetarako erabili ahal izateko, eta, bestetik, Nafarroan dauden bide berdeetarako plan integrala presta zezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Aitor Etxarri Pellejero foru parlamentariak mozio horri buruzko galdera bat egin zuen, eta galdera hori berretsi egin du (PES 272/08). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak honako jarduerak egin ditu, 2008ko urriaren 6ko erantzunean adierazi bezala:

– 2001etik 2004ra bitartean, garai hartako Ingurumen Ministerioarekin egindako lankidetzahitzarmenaren baitan, bi errege-abelbide sailkatzeko, mugatzeko eta zedarritzeko lanei ekin zitzairen: Ebroko Iraganbide Nagusia eta Probitzi-

etako Errege Abelbidea. Lan horiek 1.180.000 euroko kostua izan zuten.

– 2007 eta 2008an, Biodiversidad Fundazioarekin egindako hitzarmenaren baitan, hainbat abelbide sailkatzeko lanei ekin zaie Izaban, Zaraitzu ibarrean, Fiteron, Cascanten, Ablitasen, etab. Halaber, errege-abelbide batzuk hobetzeari eta egokitzeari ekin zaio: Milagrotik Aezkoara, Orbaibarratik Andiara, Murillo el Frutotik Zaraitzura, eta Taustetik Urbasa-Andiara. Bi urte horietan 524.000 euro gastatu dira.

– Landa Garapen eta Ingurumen Ministerioan natura-inguruneaz eta baso-politikaz arduratzen den zuzendaritzarekin egindako bileran proposatu dugu beste lankidetzahitzarmen bat egitea, abelbideen foru-sarea berreskuratzeko lanekin jarraitzearren.

Bide zaharrak oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat prestatzeko Nafarroako Gobernua premiatzen duen erabakiaren testua Nafarroako trenbide zaharrei buruzkoa da. Haren eskumena, berriz, ez dagokio departamentu honi.

2. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua ez da ildo horretan inongo planik egiten ari. Nafarroako Gobernuak egokitzat jotzen duen unean eta egoera ekonomikoak horretarako bidea ematen duenean, dagokion departamentuak egin beharrekoa aintzat hartu ahalko du.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ez du inolako hitzarmenik sinatu.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, kanabisaren auto-laborantzaren aurkako ekintzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du kanabisaren auto-laborantzaren aurkako ekintzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du foruzainek kanabisaren auto-laborantzaren aurka egindako ekintzei buruz (PES-340). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 4. artikulua araber, Nafarroako polizia kidegoen jarduteko printzipioetan lehena da "Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta antolamendu juridikoak agintzen dutena bete eta betearaztea," eta printzipio horri ez dio inolako baldintzarik jartzen, ez ekonomiaren ez giza baliabideen aldetik. Eta hori da Foruzainoak egiten duena; alegia, legea bete eta betearazteko jarduketa arruntan artean, galderan aipatzen den aferari buruzko lege arauditik heldu diren jarduketak egiten ditu.

Hori dela-eta gogorarazi beharra dago ezen, Herritarren Segurutasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 25. artikulua xedatzen duenez, herritarren segurutasunaren aurkako arau-hauste larria dela, non eta ez dagoen arau-hauste penalik, droga toxikoak, sorgogarrak nahiz substantzia psicotropikoak kontsumitzea edo modu ez-zilegian edukitzea –nahiz eta trafikatzeko asmorik izan ez– leku, bide, establezimendu edo garraio publikoetan, bai eta aipatutako lekuetan horiek kontsumitzeko erabilitako tresnak abandonatzea ere.

Zigor Kodeak, berriz, ondokoa ezartzen du:

368. artikulua.

"Norbaitezuek droga toxiko, sorgogarri edo gai psicotropikoak landu, egin edo trafikagai hartzen

badituzte, edo beste modu batera horien legez aurkako kontsumoa sustatu, faboratu edo errazten badute, edo aurreko helburuak lortzeko eurok edukitzen badituzte, orduan, halakoei espetxealdizgorra ezarriko zaie, hiru urtetik bederatzita artekoa, bai eta isuna ere, delituaren gai den drogaren baliotik horren hiru halako artekoa, baldin eta osasunari kalte larria egiten dioten gai edo ekoizkinak badira; eta, gainerako kasuetan, espetxealdizgorra ezarriko zaie, urtebetetik hiru artekoa, bai eta isuna ere, drogaren baliotik horren bi halako artekoa."

369. artikulua.

"1. Hurrengo kasuetan, aurreko artikuluan, kasuan-kasuan, adierazitako zigor askatasun-gabetzaileak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira eta, horiekin batera, drogaren baliotik balio horren lau halako arteko isuna:

Erruduna agintari, aditu, funtzionario publiko, gizarte-langile, irakasle edo hezitzailea denean, bere lanbide, ogibide edo karguan ari dela jarduten badu.

Erruduna antolakunde edo elkarte baten bazkidea denean, erakunde edo elkarte hori iragankorra bada ere, eta gai edo ekoizkin horiek noizean behin hedatzeko helburua badu ere.

Errudunak parte hartzen duenean bestelako delitu-jarduera antolatuetan, edo delitu egitearen bidez errazago gauzatzen diren delitu-jardueretan.

Egitateak arduradun edo enplegatuek gauzaten dituztenean jendaurrean zabalik dauden establezimenduetan.

Arestiko artikuluan aipatutako substantziak hemezortzi urte baino gutxiagokoei, adimen-urrituei nahiz mendekotasuna gainditzeko edo errehabilitazioko tratamendua egiten ari direnei ematen zaizkienean.

Aurreko artikulua aipatu dituen jokabideen barnean substantzien kopurua garrantzi handikoa denean.

Aipatutako substantziak andeatu, manipulatu edo elkarrekin nahiz beste batzuekin nahasten direnean, osasunaren aurka gerta daitekeen kaltea handituz.

Aurreko artikuluan azaldutako jarrerak ikastegietan, militarren zentro, establezimendu edo unitateetan, espetxeetan edo mendekotasuna gaindi-

tzeko edo errehabilitazioko zentroetan, edo horien inguruetan, gertatzen direnean.

Errudunak indarkeria erabiltzen duenean edo egitatea burutzeko armak erakutsi edo erabiltzen dituenean.

Errudunak substantzia edo ekoizkin horiek lurralde nazionalean legez kanpo sartu edo ateratzen dituenean, edo jarrera horiek errazten ditue-nean.

2. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko 2., 3. eta 4. inguruabarretan aurreikusitako kasuetan, delituaren gai den drogaren baliotik horren hiru halako arteko isuna ezarriko zaio establezimenduaren titularra den erakunde, elkarte edo pertsonari, eta delituaren gai diren ondasunak bahituko zaizkio, bai eta delitu-egintzatik zuzenean nahiz zeharbi-dez lortutako produktuak eta irabaziak ere; aginte judizialak, orobat, ondoko neurrietako baten bat agindu ahalko du:

Dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea eta Gizarte Segurantzaren zerga-hobari edo -pizgarriak izateko eskubidea galtzea, zigor askatasun-gabetzaileetarik handiena dirauen bitartean.

Kode honetako 129. artikuluan ezarritako neurriak aplikatzea.”

Eta, zehazki, arau-esparru horretatik abiatuta, Foruzaingoko kideek kanabisaren auto-laborantzaren aurkako jarduketak egin zituzten 2008ko abuztuaren 20tik irailaren 5era bitartean. Jarduketa haietan Herritarren nahiz Ingurumenaren Babeserako ataletako eta Polizia Judizialeko kideek parte hartu zuten, kasuko jarduketa-alorrek koordinatuta betiere, eta horrek ez zion batera kalterik eragin unitate horien eguneroko lanari, eta hautematearen arduraren duten langileek ez zuten ezertarako ere albo batera utzi ez haien betekizuna ez herritarren eskarien berehalako erantzuna. Alegia, egun horietan jardunean ziren langileen lanaldi arruntaren barruan sartu ziren autokontsumoaren aurkako jarduketa horiek, eta eskueran zeuden baliabide materialak erabili ziren; kasu bereziren batean, lur malkartsu edo iristen zailak zirenetan, Nafarroako Gobernuaren aireko baliabideak ere erabili ziren.

Operatiboak ondoko helburuak zituen: *cannabis sativa* sailak aurkitzea, batez ere sail ureztatueta-koak, hautemandako landareak biltzea, horien titularren aurkako salaketa egitea eta horiek suntsitzea gero baldin eta sailaren titularra identifikatzen ez bazen.

2. Hortaz, foruzainek erabilitako orduak, haien lanaldian sartzen zirenez, ez diote gain-kosturik ekarri diru publikoaren kutzari; izan ere, esan

bezala, parte hartu duten foruzainen lanaldi arruntan sartzen ziren.

Aireko baliabideak erabili izanari dagokionez, adierazi beharra dago ezen Nafarroako Gobernuak helikoptero-zerbitzua kontratatua duela 2006tik 2009ra bitarteko ekitaldietarako, bi urte horiek barne, COYOTAIR, S.A. enpresarekin. Kontratua- ren arabera, hiru aireontzi mota daude erabilgarri, besteak beste Ecureil, AS 355 N helikoptero bat, zeina egunero baitago erabilgarri, operatzeko prest eta exijitutako ekipamendu, hornikuntza eta pertsonalarekin. Helikoptero hori, erabilera anitzeko-koa baita, urte osoan erabiltzekoa da. Kontratua- jasota dago, aparatu titularren eta erreserbakoen artean, beste bost aireontzi izateko aukera. Heli- kopteroa kontratatzekeko prezioak 1.200 hegaldi- ordu jasotzen ditu, eta horiei beste 100 ordu gehitu behar zaizkie, Administrazioarentzako kosturik gabeak.

Aipatutako legedia betetze aldera *cannabis sativa* sailak zaintzeko eginkizun horretan 36 hegaldi-ordu sartu zirenez, ez zen kostu gehigarri- rik sortu.

3. Guztira, 2008an, orain arte, 10 pertsona atxi- lotu ditugu, eta horien aurkako 9 auzi penal bide- ratu dira, eta 108 kanabis-landare atzeman dira.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian eta Nafa- rroan izandako prozeduretatik heldu den eskar- mentuan oinarrituta ezarri da ea pertsona batek noiz egiten duen, ustez, delitu bat eta ez adminis- trazioko arau-hauste bat. Halatan, uste da sub- stantzia horrekiko mendekotasun arrunta duen per- tsona baten urte osoko kontsumorako aski dela kanpoan hazitako 7 landare emek emandako mari- huana. Beraz, kopuru horretatik gorako kanabis- landare kopurua atzematea zantzu-proba askitza- t jotzen da, trafikorako aurrez agindutako kopurua dela ondorioztatzeko. Laborantzako armairuen kasuan, urtean lau ziklo edo gehiago egin daitez- keenez, pertsona bakoitzeko landare bitik gora, arau-hauste penal baten aurrean geundeke.

Foruzaingoak ez du zuzeneko sarbiderik epai- tegietako zigor prozeduren izapidetzea zertan den ikusteko, eta, hortaz, ezarritako zigorre- i, espetxe- ratze- i eta errugabetutako- i buruzko informazioa organo judizial eskudunari eskatu beharko litzaio- ke.

Foruzaingoaren artxiboetan jasota dago, bai, kanabisa landatzeagatik atxilotutako pertsona guz- tiak prozesatu dituztela Nafarroako instrukzioko epaitegiek eta akusatu dituela Fiskaltzak. Prozesu horien zigor instrukzioa nabarmen atzeratu ohi da; izan ere, inputatuek ia kasu guztietan eskatzen dute auzitegi-frogak egin daitezen drogazaleak

direla frogatzeko eta, hartara, adikzioa dela-eta zigorra arintzeko. Halatan, Nafarroako zigor arloko epaitegiak 2008an ari dira egiten 2006 abiarazita-ko kausen ikustaldiak.

Ez da inor espetxeratu kanabisa landatzeagatik, ez behin-behinekoz ez epai irmo baten ondorioz ere; izan ere, hasteko, espetxe zigorrak ez direnez bi urtetik gorakoak, zigortuak behin-behineko askatasun egoeran gelditzen dira, eta zigorra aurrekari gisa zenbatuko da baldin eta berrerritzen badira.

Testuinguru horretan gehitu beharra dago ezen delitugileei ezarritako zigorrak drogak merkatuan duen baliotik horren bi halako artekoa izaten dela, baldin eta osasunari kalte larria eragiten ez dioten substantzien droga-trafikoarengatik zigorra bada. Zenbateko hori kalkulatzeko, drogek legez kanpoko merkatuan batez beste duten balioaren taula bat erabiltzen da, Polizia Nazionaleko zerbitzu zentralak egina eta Espainian erreferentzia-indize gisa erabilia. Taula horren arabera, marihuana-gramo baten balioa 3,26 eurokoa da.

Kanabisaren auto-laborantza dela-eta foruzainek eginiko administrazio-salaketei dagokienez Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak eta, zehazkiago, Barne Zuzendaritza Nagusiak eginikoari buruz zehaztu beharra dago ezen jarduketak horiek abuztuaren amaierakoak edo irailaren hasierakoak direla, eta, hortaz, egitateak argitu, berretsi eta balioesteko hasierako fasean daudela; hori dela eta, ez dira abiarazi kasuko zehapen-espeditenteak, salaketak noiz sartzen diren, ordena horretan egiten baita espeditenteen instrukzioa. (Orain arte 921 salaketa izapidetu dira, 2008ko lehen sei hilabetei dagozkienak, Herritarren Seguritasunari buruzko Lege Organikoko 25. artikulua urratzeagatik).

Administrazio zehapen-prozeduren ondorioz hel litezkeen ekonomia-zehapenei dagokienez, ikusi beharko da zer kantitate atzeman diren eta zer lege-irizpide baliatzen diren zehapenaren maila ezartzeko; hortaz, zaila da, eta lege aldetik bidegabea, azken zenbatekoa alde zurretik kalkulatzea.

Adibide gisa esan daiteke Foruzainoak 2008ko abuztuaren eta irailean egindako kanpainan 581 landare atzeman zirela, 57 salaketa jarri zirela eta 4 atxiloketa egin zirela.

4. Zenbat kanabis kilo atzeman diren galdetzen da, eta horri buruz argitu beharra dago kanabis landareak ez direla polizia-egoitzan pisatzen; zenbatu egiten dira, eta Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak igortzen dira pisatzera, tetrahidro-cannabinol-metaketa handiena duten zatiak bereiztera eta printzipio aktibo horren kontzentrazioa ezartzeko analisiak egitera.

Azken finean, zenbatu gabe dago zenbat marihuana-gramo lortuko litzatekeen atzemandako landare guztiekin, baina, hazien salmentaz arduratzen direnen publizitatearen arabera, kanabis landare bakoitzetik 200 eta 300 gramo bitarte ateratzen dira baldintza normaletan.

Arestian esan dudanez, 2008an, orain arte, zortzi zigor-prozedura abiarazi dira kanabisa landatzeagatik eta 108 landare atzeman dira, gutxi gorabehera 27.000 marihuana-gramo emanen litzuketanak eta legez kanpoko merkatuan 88.000 euro balioko luketenak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 16an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Funes, Faltzes eta Azkoiengo zahar-etxeetako erizaintzako diplomadunei aplikatu beharreko foru arauen betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Funes, Faltzes eta Azkoiengo zahar-etxeetako erizaintzako diplomadunei aplikatu beharreko foru arauen betetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 28ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Funes, Faltzes eta Azkoiengo zahar-etxeetako erizaintzako diplomadunei aplikatu beharreko foru arauen betetzeari buruz (PES 364-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Azkoien, Funes eta Faltzesko zentroetara eginitako ikuskapen bisita arruntetik, honako informazio atera dugu:

a) Azkoien

Betetako postuak: 56 (30 mendekotasuna dutenak eta 26 beren kabuz moldatzen direnak)

2008ko urriaren 13an eginitako ikuskapenean, egiaztatu genuen zentroak erizaintzako langile propioak dituela –kontrataturako erizain bat eta zentroko lekai bat, erizaintzako titulazioa duena eta eginbehar horietan aritzen dena–; horrek esan nahi du egoitzak aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoa betetzen duela, hain zuzen ere maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuan ezarritakoa.

b) Faltzes

Betetako postuak: 42 (19 mendekotasuna dutenak eta 23 beren kabuz moldatzen direnak)

Azken egindako ikuskapen bisita arruntean, 2008ko azaroaren 17an eginitakoan, egiaztatu genuen 2008ko azaroaren 13tik OLTa (egoitzako langile propioa, lekai bat) bajaran dagoela ebakuntza bat egitearen ondorioz. Une hauetan, zentroa behar diren jarduerak egiten ari da baxa hori betetzeko (hala eskatu zaie akta bidez). Bitartean, zuzendariak, erizaintzako diplomadunak, Ikuskatzaileak Atalak aurkezturiko dokumentazioan ageri denez, OLT funtzioak betetzen ditu zentroan. Horrenbestez, une hauetan erizaintzako laguntza bete egiten da.

c) Funes

Betetako postuak: 42 (29 mendekotasuna dutenak eta 13 beren kabuz moldatzen direnak).

Ikuskapen Atalean dagoen informazioaren arabera, Egoitzak kontratatutako langile propioak izan zituen erizaintzako eginkizunetarako 2008ko urtarriletik 2008ko ekainera. Hala eta guztiz ere, 2008ko irailaren 22an eginitako ikuskapen bisitan, egiaztatu zen bai zerbitzu medikoa bai erizaintzako arlo publikotik ematen direla eta egunero, herriko osasun etxearen bitartez.

Aipatu bisita arruntari buruzko espedientea aztertu eta berrikusi ondoren, eta arauak betez, idazki baten bidez Ikuskapen Atalak egoitzari eskatu dio behar diren urratsak egin ditzan erizaintzako langileak kontratatzeko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 19an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroa 2012 Planean aurreikusitako obrak eginez gero Santo Domingo zahar-etxean galduko liratekeen lanpostuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroa 2012 Planean aurreikusitako obrak eginez gero Santo Domingo zahar-etxean galduko liratekeen lanpostuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko azaroaren 28ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroa 2012 Planean aurreikusitako obrak eginez gero Santo Domingo zahar-etxean galduko liratekeen toki eta lanpostuei buruz (PES 365-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Galderan aipatzen den proiektua dela eta, esan beharra dago gaur egun proposamenak eta ordezeko konponbideak bilatzen ari direla. Horrenbestez, ezin da une honetan zehaztu zein izanen den azterketa horren emaitza eta, horrenbestez, egoitzetako tokien kopurua gutxitu beharko den.

Hala eta guztiz ere, obrak egiteak ukitutako egoitzako tokiak gutxitzea ekarrita ere, hori bertan egoiliar daudenei laguntza hobea ematearekin justifikatuko litzateke. Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuak ez du inoiz planteatu gaur egun arlo publikoaren eskura dauden tokien guztizko kopurua jaitea; aitzitik, egun daudenen kopurua handitu nahi du, 2008an onetsitako gizarte zerbitzuen zorroaren exijentziei aurre egin ahal izateko.

Azkenik, lanpostuen kopuruari buruzko daturik ez dago, eta, horrenbestez, ezin da ondorioztatu Lizarrakko Santo Domingo egoitzako egungo plantilla gutxituko denik. Departamentu honek, izan ere, ez du sekula aukera hori aintzatetsi.

Iruñean, 2008ko abenduaren 22an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, jakiteko ea zergatik gelditu den Sunbillako Udala bigarren urtez jarraian abeltzaintzako toki azpiegiturak hobetzeko dirulaguntzetatik kanpo.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea zergatik gelditu den Sunbillako Udala bigarren urtez jarraian abeltzaintzako toki azpiegiturak hobetzeko dirulaguntzetatik kanpo.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko abenduaren 10eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea zergatik gelditu den Sunbillako Udala bigarren urtez jarraian abeltzaintzako toki azpiegiturak hobetzeko dirulaguntzetatik kanpo

(PES-368/08). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Abeltzaintzako Azpiegituren Batzorde Teknikoak, 2007ko laguntzen deialdiko oinarrien bareman ezarritakoari jarraituz, 33,5 puntu eman zizkion Sunbillako Udalari.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren abuztuaren 14ko 1263/2007 Ebazpenaz, ezezkoa eman zitzaion Sunbillako Udalak eskatutako laguntzari, aurrekontuetan krediturik ez zegoelako, deialdi horretako oinarrien 7.8b artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Aipatu ebazpenaren bidez dirulaguntza eman zitzaion 40 puntu edo gehiago lortu zituzten toki entitateei; Sunbillako Udalari, berriz, 33,5 puntu eman zitzaizkion.

Abeltzaintzako Azpiegituren Batzorde Teknikoak, 2008ko deialdian ezarritako baremoari jarraituz, ondoko taulan ageri den puntuazioa eman zion Sunbillako Udalari:

BAREMOA	LORTUTAKO PUNTUAZIOA
a) Batasunaren Intereseko Lekuen erabilpen eta kudeaketa planen barrenean jasotako jarduketak: 20 puntu.	0
b) Toki entitateak azken bi urteetan abeltzaintzako toki azpiegiturarako laguntzarik jaso ez badu edo jarduketak aurreko deialdietan onetsitako proiektu baten atal bat baldin badira: 10 puntu. Nolanahi ere, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Nekazaritza Ustiatgien Erregistroan ehun ustiategi baino gehiago inskribaturik dituzten udalerriek 10 puntu izanen dituzte beti, aurreko bi urteetan laguntzak jaso badituzte ere.	0
c) Puntu erdi bat jarduketak ukitu eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Nekazaritza Ustiatgien Erregistroan dagoen ustiategi bakoitzeko, gehienez 10 puntu.	0,5
d) Herrilurrak aprobetxatzeko kanona baldin badago: 10 puntu.	10
e) Proiektua toki entitatearentzako gizarte-interes handia baldin badauka: 4 puntu. Gizarte-interesak nagusiki toki entitatekok abeltzainen kolektiboan eragina baldin badu: 6 puntu gehiago. Proiektuaren interes teknologiko eta ekonomikoarengatik, 5 puntu emanen dira bakoitzarengatik.	10
f) Toki entitatea atzeraldian dauden udalen zerrendan baldin badago (V. eranskina): 10 puntu. Toki entitatea ez badago sarturik atzeraldian dagoen udal batean, baina mendiko eskualdetzat hartzen bada: 5 puntu.	5
g) Deialdiaren aurreko urteetan gorabehera meteorologikoek abeltzaintza-azpiegiturretan sorturiko kalteak Nafarroako Gobernuari jakinarazitako toki entitateek, inolako laguntzarik jaso ez badute: 10 puntu, gorabehera horrengatik.	0
GUZTIRA	25,5

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 1507/2008 Ebazpenaz, ezezkoa eman zitzaion Sunbillako Udalak eskatutako laguntzari, aurrekontuetan krediturik ez zegoelako, deialdi horretako oinarrien 7.8b artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Aipatu ebazpenaren bidez dirulaguntza eman zitzaion 41 puntu edo gehiago lortu zituzten toki

entitateei; Sunbillako Udalari, berriz, 25,5 puntu eman zitzaizkion, aurreko taulan ageri den bezala.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko abenduaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begonia Sanzberro Iturriria

Galdera, Leitzako Maxurrenea etxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako Maxurrenea etxeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko abenduaren 10eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako Maxurrenea etxeari buruz (PES-367/08). Hona Hezkuntza Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Iruñean, 2009ko abenduaren 29an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

URTEA	JARDUKETA	ZENBATEKOA
2002	Ez dago berariazko kontusailik	
2003	Ez dago berariazko kontusailik	
2004	Instalazio elektrikoak	2.021,01
2004	Aldagelak berritzea, ikasgelak egiteko	11.917,13
2004	Pintura	3.915,34
2005	Ikasgelak berritzea	16.758,76
2006	Teilatuan egin beharreko lanak	6.328,96
2006	Berrikuntzak galdara-gelan	6.037,98
2006	Jantokiko instalazio elektrikoa berritzea	5.035,56
2007	Atezaintzan eta itxaron-gelan konponketak eta pintura lanak egitea.	13.000,00
2007	Zurgintza lanak	4.953,20
2008	Zenbait lan	18.529,00

Galdera, debekualdia ezarri ondotik amuarrain-populazioak izan duen bilakaerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du debekualdia ezarri ondotik amuarrain-populazioak izan duen bilakaerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko abenduaren 19ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu taldeko José Ángel Agirrebengoa Imazek galdera egin du debekualdia ezarri ondotik amuarrain-populazioak izan duen bilakaerari buruz (PES-369/08). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Amuarrain kumeen jaiotzari eta sorrerari buruzko datuei dagokionez, Nafarroako ibaietako 1999-2008 aldiko amuarrainen erruteari buruzko urteko bilakaeraren txostena eransten dizut (papelean eta CDan). Halaber, 2003-2004 urteetako neguko eta 2004ko udaberriko jarraipenari buruzko datuak gehitu ditugu (euskarri digitalean).

2.- Amuarrainen populazioari buruzko datuei dagokionez, Nafarroako ibaietako amuarrainen populazioen egoerari buruzko urteko txosten guztiak erantsi ditugu, 2004tik hasi eta 2008ra arte. Halaber, 2008ko txostenaren kopia gehitu dugu, inprimatua bidaltzen dizut, bai eta adierazitako urteko txosten guztiak CD euskarrian.

3.- Ubarroien populazioaren jarraipenari dagokionez, berriz, iragarri bezala azterketa bat egiten

ari da. Azterketa hori haien populazioan eta elikaduran zentratu dago, eta helburu du zehaztea espezie horien presentziak arrainen beste espezieetan –bereziki, amuarrain arruntean– izan dezakeen eragina. Ubarroien presentzia neguan handiagoa denez eta amuarrain kumeak harrapatzeko aukerak udaberrian iparralderantz itzultzen diren arte luzatzen denez, azterlana azarotik hasi eta apiril-maiatzera artekoa da. Hori dela eta, une honetara arte jasotako datuak oraindik ere hasi aurrekoak dira eta ez dira nahikoa arrazoi azterlan horretan oinarrituriko balizko populazio-kontrolak direla-eta erabakiak hartzeko. Nolanahi ere, populazioen balizko kontrol hori balizko aukeretako bat izan daiteke lortzen diren emaitzen arabera egokiak izan litezkeen konponbide teknikoaren barruan.

4.- Datu horien balorazioari dagokionez, departamentu honen ustez azken urtean amuarrain populazioetan joera positibo moderatua gertatzen ari da, eta horrek berresten du hartutako neurriak egokiak izan direla. Halere, argi dago joera hori hurrengo denboraldietan finkatu beharra dagoela, populazioen egoera txarra eta ibai-arro askotako egoera –oraindik ere oso behin-behinekoa– direla eta.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko abenduaren 31n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00369 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

